

OSAKIDETZAKO ZERBITZU ERAKUNDEETAKO EUSKARA PLAN BERRIAK

2013ko abenduaren 3an onartu zuen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2013-2019 aldirako Euskara Plana.

Apirilaren 15etik hona, plan orokor horren zehaztapen gisa, Osakidetzako zerbitzu erakunde bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko bere plana edo programa garatu eta onartu du.

Zuzendaritzaren ebazpenez, helburuak hauexek dira: hizkuntz eskubideen errespetuan aurrera egitea, osasun zerbitzua euskaraz ere eskainiz asistentziaren kalitatea hobetzea eta erakundeak pertsonekin duen konpromisoa areagotzea.

Zerbitzu erakundeetako plan horiek guztiak ikusgai daude Osakidetzaren webgunean:

[webgunearen esteka](#)

2013-2016 BITARTEKO PAZIENTEAREN SEGURTASUNAREN ESTRATEGIA PLANA

Jon Darpon Osasun sailburuak eta Enrique Peiro Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko programen koordinatzaileak egitasmo bat aurkeztu zuten: Osakidetzako pazientearen segurtasuna hobetzeko helburua duen Pazientearen Segurtasunaren Estrategia 2013-2016 plana.

Osasun sailburuaren esanetan, jauzi kualitatiboa izango da: "Osakidetzak aspaldidanik dihardu eremu honetan, baina, lehenbiziko aldiz, estrategia bateratu bat sortu da. Hala, hortik sortu den dokumentua erakunde guztietara helaraziko dute eta Osakidetzako profesional guztien eskura egongo da. Helburu nagusia sarean lan egiteko modua izatea da. Beraz, ondo koordinatuta eta gure lantaldeen jardunbide egokien berri elkarri emanda, paziente guzti-guztien segurtasuna nonahi eta noiznahi bermatzeko aukera izango da".



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAK BI GELA ESTREINATU DITU OSPITALERATUTAKO UMEENTZAT ETA HAIEN FAMILIAKOENTZAT

Espazio horiek gizatiarragoak egiteko asmoarekin, ospitaleak IKEAren esku utzi ditu bi eremuen apainketa: Bularreko Haurrak eta Haur Onkologia.

Proiektua aurrera eramán ahal izan dute bi erakundeek Erantzukizun Sozial Korporatiboko estrategiei esker. Apainketa berriak bestelako itxura eman die bi gelei; orain, funtzionalagoak ez ezik, erosoagoak ere izango dira. Horrek guztiak senideen atsedena eta ospitaleko egonaldia hobetuko ditu.

Bularreko Haurren aldea 6. D solairuan dago; 24 ohe ditu, eta urtean, 28 hilabete eta 2 urte arteko 1.030 paziente baino gehiago artatzen ditu mota askotako patologiek. Alde horretan, itxarongela bat atondu eta apaindu dute senideen atsedenerako (gela bat mikrouhinarekin, telebistarekin, besaulkiarekin, eta bainugela, dutxa eta guzti).

Bestalde, Haur Onkologian, bulego bat eraberritu eta apaindu dute, gune funtzioaniztuna izan dadin. Zerbitzu horrek 340 haur inguru artatzen ditu urtean.

SORTZETIKO HAMAHIRU GAIXOTASUN KASU ANTZEMAN DITUZTE, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JAIOPERRIEN BAHETZE PROGRAMARI ESKER

2014ko lehen seihilekoan 10.000 jaioberri aztertu dituzte Osakidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaioberrien Bahetze programaren bidez, eta sortzetiko hamahiru gaixotasun kasu detektatu dituzte. Horietako batzuk gaixotasun arraroak dira, estatistiken arabera 200.000 jaioberritik bati eragiten diotenak.

Gaitzen ondorio larriak saihesteko, ezinbestekoa da gaixotasuna goiz antzematea, diagnostiko egokia egitea eta garaiz tratatzea. Sortzetiko gaixotasunei loturiko ezintasunak prebenitzea da Euskal Autonomia Erkidegoko Jaioberrien Bahetze programaren helburu nagusia; horretarako, nahitaezkoa da Osasun Publikoko Prebentzio eta Laguntza programa.



«Bitxia da erizainen eta medikuen erizaina izatea»

maider caminero

Bilbo-Basurtu ESiko Oinarrizko Prebentzio Unitateko erizaina

Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Oinarrizko Prebentzio Unitateko erizaina da Mainer Caminero (1980, Bilbo). Bilboko On Diego Lopez Haroko Kale Nagusian du lantokia, eta haren eguneroko lanetan daude osasun azterketa periodikoak egitea eta bere lankideen laneko arriskuak identifikatzea eta gutxitzea.

Nolakoa da Oinarrizko Prebentzio Unitateko erizain baten egunerokoa?

Integrazio prozesu honetan, Lehen Mailako Arretaz arduratzen den atalaren barruan, lanean aritzen gara bi mediku, bi erizain, teknikari bat eta administrari bat. Batez ere, hiru jardueraz izaten ditugu. Batetik, lankideen osasunaren balorazioa egitea, osasun azterketa periodikoen bidez; bestetik, lankideen lan arriskuak identifikatzea, baloratzea eta kudeatzea; eta, bestetik, lanean lankideek izaten dituzten lan istripuak ikertzea. Osasun azterketak izaten dira gehienbat.

Bilbo-Basurtu ESiko lankide guztiak igarotzen dira zuen kontsultetatik?

Gehienak etortzen dira azterketa egitera, baina ez denak. Gehienak medikuak edo erizainak direnez, pentsatzen dute osasuntsu daudela, eta horrekin borrokatu behar izaten dugu pixka bat. Ezberdinak dira osasun zentroan egiten dituzten probak eta lanerako egin beharrekoak. Egia esan, bitxia da erizainen erizaina edo medikuen erizaina izatea.

Karpeta gorria delakoa erabiltzen duzue. Zertarako da?

Gure lan tresna da karpeta gorria. Lantokian istripurik izanez gero, karpeta gorriko formularioa osatu behar dute profesionalak: ziztatu dutela, erori egin direla, lanean erasoak izan dituztela...

Arduradunek sinatu behar dituzte dokumentuok, eta, dena osatuta dagoenean, guri bidaltzen digute, fax bidez. Haiekin harremanetan jartzen gara, eta istripua ikertzen dugu. Horregatik, ez daukagu agenda itxia. Jasotzen ditugun abisuen arabera aldatzen da lan karga gurean.

Zein dira sarrienik izaten diren istripuak?


Lehengo Bilbo Eskualdean, deigarriak zen zenbat gertakari eta istripu jakinarazten ziren; izan ere, Bilbo Eskualdeak horien berri ematea sustatzen zuen. Istripu biologikoen zifrek, zorionez, asko egin dute behera azken urteotan. Baita

indarkeria kasuek ere: 2012an 95 eraso kasu izan ziren, eta iaz, 61. Jaitsiera hori, neurri handi batean, zentroan egindako kudeaketa egokiari zor zaio. Kopurua oraindik handia da; dena den, eraso larriak bat edo bi izan ziren. Baja eragin zuten istripu ez-biologikoen %63 zentrotik kanpo gertatu ziren iaz. Hori ona da guretzat, lana ondo egiten ari garen seinale.

Ikerketa egin ostean, zer egiten duzue?

Halakoak ez gertatzeko, hobekuntza proposamenak egiten ditugu. Ikerketa guztiak zentroetako arduradunei eta dagokion zuzendaritzari helarazten

2013AN ISTRIPU EZ-BIOLOGIKOA GERTATU DEN TOKIA



Azken hiru urteetako istripuen balantzea jaso dute horien inguruko txostenean.



MONIKA JUARISTI

dizkiegu, eta, urte bukaeran, *itxiera ekimena* esaten dioguna egiten dugu, proposamen horiek egin diren ala ez egiaztatzeko.

Istripuak gertatzen direnean bakarrik ematen dira konponbideak?

Ez. Prebentzioari garrantzi handia ematen diogu. Urtean behin, gutxienez, sareko zentro guztietara joaten gara. Bisitaldi horietan, prebentzio neurriak betetzen diren eta ea dena ondo dagoen ikusten dugu: seinaleak, odola ateratzeko guneak —orratz hegodun guztiak aktibatuta daudela,

guanteak erabiltzen dituztela...—, suterik balego ea dena ondo dagoen —bonbonak, larrialdi irteerak...—. Horiek denak istripurik ez gertatzeko egiten ditugu; hau da, prebentziorako.

Egin dituzuen proiektuen artean, *Deparis* izenekoa dago. Zertan datza?

Gaztelarako *despistaje participativo de riesgos* hitzetatik datorkio izena. Duela lau urte, prebentzioaren alorrean zerbait berritzailea egitea proposatu ziguten Alde Zaharreko Osasun Zentroko lankideek. Asko pentsatu eta

gero, *Deparis* egitea proposatu genuen eta poz-pozik onartu zuten. Zentro bakoitzeko, bina administrari, mediku eta erizain biltzen ditugu —lankideek nahi izanez gero, arduradunek ere parte har dezakete—, eta *check-list* bat egiten da. Galderak egiten dizkiegu lan espazioez, azpiegiturez, baldintzez, lan giroaz eta abarrez. Arazoak azaleratzeaz gain, proposamenak egiteko aukera izaten dute. Lankide guztiok prebentzio alorrean inplikatzeko proiektua da. Hobekuntzarako planak eta ekintzak ateratzen dira saioetan. Guztiak jaso eta gero, etxeko lanak egitea tokatzen zaigu, eta bueltan, hobekuntzarako neurriak proposatzen ditugu.

Non aplikatu duzue *Deparis*?

Osasun zentro guztietan egiten hasi ginen, pixkanaka, eta iaz lortu genuen osasun zentro guztiek *Deparis* bat egitea. Bigarren saioak egingo ditugu ziur asko —toki batzuetan egin dituzte—, baina ezinbestekoa da saio batetik bestera denbora tarte bat igarotzea proiektua eraginkorra izan dadin. Izan ere, lehenengo proposamenak aplikatu eta emaitzak ikusten hasteko beharrezkoa da bi urte inguru igarotzea. Helburuak errealak diren edo ez aztertu behar da, eta haietan barneratu, sakondu... Hori bai, esan behar dut orain arteko parte-hartzearekin oso gustura gaudela. Lau urte pasatu dira, eta balantzea oso positiboa da.

Honetan guztian, zein leku ematen diozue euskarari?

Karpeta gorrian dauden inprimaki guztiak euskaraz ere badaude, eta, jandantik, bakarren bat animatu da, eta jakinarazpena euskaraz egin digu. Nik kontsultan kartela badaukat, eta e-a soinean eramaten dut beti. Kartelak jarri ditugunetik, egia da euskaraz gehiago egiten dugula. Pazienteak euskaraz dakiela ikusiz gero, euskaraz egiten diet beti osasun azterketa. Ikuurrak jarriak ditugu, eta, beraz, euskaraz egiteko aukera ere badute.

gramatika

ZENBATASUNA:

• Kantitatea eta kopurua

Lehendabizi, kantitatea edo kopurua; eta, gero, materia (artikulurik gabe).

Dozena erdi piper erosi dut, baita kilo bat patata ere.

• -KADA atzizkia

-kada atzizkia erabil dezakegu unitatea adierazteko.

Eskukada bat gatz bota diot.

• BASO BAT UR eta UR BASO BAT

Baso bat ur: baso batean sartzen den ur kopurua, hau da, edukia (edukia = ura).

Ur baso bat: objektua bera, hau da, ura edateko erabiltzen den ontzia (edukitzailea = basoa).

DIMENTSIOAK

Dimentsioak (luzera, altuera, zabalera...), pisuaren eta edukieraren antzera, lehendabizi, unitatea; eta, jarraian, dagokion adjektiboa mugagabean.

Hiru metro luze da. **Bost zentimetro zabal** da.

• -KO atzizkiaren bidez ere erabil daiteke

Horrek **hiru metroko luzera** dauka. Oholak **bi zentimetroko lodiera** dauka.

Iturburu: Euskal Gramatika Osoa (Iñari Zubiri-Entzi Zubiri)

HAINBAT LABURDURA ERABILGARRI

Hitz arrunt edo izen berezien laburduren ostean, puntua (.) idatzi ohi da. Hala ere, nazioarteko unitateen laburduren ostean ez da punturik jarri behar. Adibidez, 5 m, 8 m-ko altuera, 250 kg-ko harria... Hona hemen nazioarteko zenbait unitateen laburdurak:

- | | | | |
|-------------------------|------------------------|--------------------------------------|-------------------------|
| • m metroa | • km kilometro | • m² metro koadroa | • cm zentimetroa |
| • mm milimetroa | • g gramo | • kg kilogramoa | • l litroa |
| • cl zentilitroa | • ml mililitroa | • s segundoa, | • min minutua, |
| • h ordua. | | | |

Iturburu: euskaljakintza.com/kontsultategia/laburdurak

ARIKETA Zenbat ur edan behar dugu egunero?

Egunero 3 (**ur litro / litro ur**) edan behar ditugu. Gure elikadura orekatua eta askotarikoa bada, 0,9 l lortuko ditugu. Gure gorputzak 0,33 (**l/l**) sortzen ditu. Beraz, egunero ordezkatu beharreko (**ur kopurua / kopurua ur**), 1,5-2 l-koa izango da. Behar adina ur edaten ez badugu, deshidratatu egin gaitezke eta deshidratazioaren ondorioak sentitu, baina, batez ere, gure garunaren errendimenduan, %83 ura baita.

Haur jaioberriek eta adinekoek (**deshidratatzeko / deshidratatzen**) arrisku handiagoa dute. Jaioberrien gorputzaren %75 ura denez, haien zatitza behar-beharrezkoa da etengabe edatea. Gorputzeko ur kopurua %15era arte jaisten da zahartzaroan, eta, horregatik, oso garrantzitsua da adinekoak behar bezala hidratatzea.

ERANTZUNAK:

3 litro ur — 0,33 l — ur kopurua — deshidratatzeko.

agenda

EUSKARA IKASTAROAK: 2014-2015EKO DEIALDIA

IVAPek bazter utzitako eskaerak, ordu kreditua amaituta izateagatik

Abuztuan jarriko da Osakidetzako Euskara webgunean ordu kreditua amaituta edukitzeagatik IVAPek bazter utzitako eskaeren zerrenda. Emandako informazioan hutsegiterik bada, interesdunak zuzentzeko eskaera aurkeztu ahal izango du Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporati- boan, irailaren 5era arte. Erreklamazio orria Euskara webgunean egongo da.

Baztertuen eta onartuen behin betiko zerrenda

Irailaren lehen hamabostaldian Osakidetzako Euskara webgunean jarriko da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda 2014-2015eko ikasturtean lanorduz kanpo euskara ikastaroetan parte hartzeko.

I. BERDINTASUNERAKO JARDUNALDIAK

«GENEROA IKUSTARAZTEA PSIKOPATOLOGIAN ETA OSASUN MENTALEAN»

2014ko irailaren 12an, Bilboko Bizkaia Aretoan.

unitate didaktikoa

Arraina ala haragia?
Zer duzu nahiago?

klikatu
hemen

